Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala | Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko urriaren 27a, asteazkena — 206 — Miércoles, a 27 de octubre de 2021

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

*Merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorean digitalizazioa sustatzeko dirulaguntza programaren oinarri arautzaileak eta 2021eko deialdia aldatzea.*

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2021eko irailaren 7an:

Diputatuen Kontseiluak, 2021eko irailaren 7an, merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorean digitalizazioa sustatzeko programaren diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartu zituen. Programa horren helburua da merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorea digitalizatzeko prozesua bultzatzea eta indartzea, sektore horien ekonomia eta enplegua suspertzeko funtsezko bideetako bat den aldetik. Horretarako, milioi bat eta bostehun mila euroko (1.500.000,00 €) gastua onartu zuen.

Oinarri arautzaileak eta 2021eko deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren 2021eko irailaren 14an (176. zenbakia).

Eskaerak aurkezteko epea irailaren 15ean hasi zen eta 2021eko azaroaren 30ean amaituko da.

2.1. oinarri arautzailean adierazitakoaren arabera, onuradunak dira jarduera ekonomikoa duten pertsona fisikoak, nortasun juridikorik ez duten pertsona fisiko edo juridikoen taldeak eta pertsona juridikoak, baldin eta haien zerga-egoitza eta lantokia Gipuzkoan badago eta haien jarduera (2021eko urtarrilaren 1a baino lehen) oinarri arautzaileen eranskin gisa doan Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafeen zerrendan badago.

Akordio horren bidez onartutako laguntza-programara ahalik eta enpresa gehienek irisgarritasuna izan dezaten, komenigarritzat jotzen da gaur egun erakunde onuradunen zerrenda handitzea. Horretarako, beharrezkoa da, alde batetik, aurreko paragrafoan aipatzen den Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafeen zerrenda zabaltzea. Eta bestetik, eskaerak aurkezteko epea luzatzea.

Ondorioz, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuaren proposamenez eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorean digitalizazioa sustatzeko programako diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileen 2.1 oinarrian aipatzen den Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafeen zerrendari honako epigrafe hauek gehitzea:

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

*Modificación de las bases reguladoras y de la convocatoria de 2021 de las subvenciones del programa para promover la digitalización en el sector del comercio y la hostelería.*

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 7 de septiembre de 2021:

El Consejo de Gobierno Foral aprobó el 7 de septiembre de 2021 las bases reguladoras para la concesión de las subvenciones del programa para promover la digitalización en el sector del comercio y la hostelería, que tiene por objeto subvencionar el impulso y potenciación del proceso de digitalización del sector del comercio y la hostelería como una de las vías fundamentales para la reactivación económica y del empleo de estos sectores. A tal fin, aprobó un gasto de un millón quinientos mil euros (1.500.000,00 €).

Las bases reguladoras y la convocatoria del año 2021 se publicaron en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 14 de septiembre de 2021 (número 176).

El plazo de presentación de solicitudes comenzó el 15 de septiembre y finaliza el 30 de noviembre de 2021.

De conformidad con lo señalado en la base reguladora 2.1, son beneficiarias de las ayudas las personas físicas con actividad económica, las agrupaciones de personas físicas o jurídicas carentes de personalidad jurídica y las personas jurídicas cuyo domicilio fiscal, así como su centro de trabajo, se encuentre en Gipuzkoa y cuya actividad (con fecha previa al 1 de enero del 2021) se encuentre en la relación de epígrafes del Impuesto sobre Actividades Económicas que se acompaña como anexo a las bases reguladoras.

Con el fin de favorecer la accesibilidad del mayor número de empresas al programa de ayudas que se aprobó en virtud del citado acuerdo, en la actualidad se estima conveniente incrementar la relación de entidades beneficiarias. Para ello resulta necesario, por una parte, ampliar la relación de epígrafes del Impuesto sobre Actividades Económicas a la que se hace referencia en el párrafo anterior. Y de otra, ampliar el plazo de presentación de solicitudes.

En consecuencia, a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, y, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Añadir a la relación de epígrafes del Impuesto sobre Actividades Económicas a la que se hace referencia en la base número 2.1 de las bases reguladoras para la concesión de las subvenciones del programa para promover la digitalización en el sector del comercio y la hostelería, los siguientes epígrafes:

EK\CV GAO-I-2021-06923

| | |
|---|---|
| 1461 | ZURA ZERRATZEA ETA INDUSTRI PRESTAKUNTZA. |
| 1462 | ZUREZ ERDI EGINDAKO PRODUKTUEN FABRIKAZIOA. |
| 1463 | ERAIKUNTZARAKO ZURGINTZA PIEZAK, PARKETA ETA ZUREZKO EGITUREN FABRIKAZIOA SAILEAN. |
| 1464 | ZUREZKO ONTZI ETA SORTAKETEN FABRIKAZIOA. |
| 1465 | ZUREZKO GAUZA EZBERDINEN FABRIKAZIOA (ALTZARIAK EZIK). |
| 1466 | KORTXOZKO EKOIZKINEN FABRIKAZIOA. |
| 1467 | IHIZKO ETA KANABERAZKO ARTIKULUAK, SASKIGINTZA, BROTXAK, ARRABOTEN, ETABARREN FABRIKAZIOA (ALTZARIAK EZIK). |
| 1468 | ZUREZKO ALTZARIGINTZA. |
| 1504 | INSTALAZIOAK ETA MUNTAIAK. |
| 1505 | OBREN AMAIERA. |
| 1653 | ETXE ETA ERAIKINTZA EKIPAMENDURAKO ARTIKULUEN TXIKIZKAKO SALMENTA. |
| 1691 | ETXERAKO, AUTO IBILGAILUENTZAT ETA BESTE KONTSUMO ONDASUN ZENBAITETARAKO ARTIKULU ELEKTRIKOEN KONPONKETA. |
| 1755 | BIDAI AGENTZIAK. |
| 1971 | IKUZTEGIAK, TINDATEGIAK ETA ANTZEKO ZERBITZUAK. |
| 1972 | ILEAPAINDEGIAK ETA GORPUTZ APAINDEGIAK. |
| 1973 | ARGAZKI ZERBITZUAK, ARGAZKIETARAKO MAKINA AUTOMATIKOAK ETA FOTOKOPI ZERBITZUAK |
| 1975 | ENMARKAZIO ZERBITZUAK |
| 2432 | BARNEKOEN DEKORATZAILEAK DISEINUGILEAK. |
| 2861 | PINTOREAK, ESKULTURGILEAK, KERAMIKARIAK, ARTISAUAK, GRABATZAIL,EAK ETA ANTZEKO ARTISTAK |

*Bigarren.* Eskaerak aurkezteko epea 2021eko abenduaren 15eko 12:00ak arte luzatzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hala ere, interesatuek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete.

Donostia, 2021eko urriaren 26a.—Departamentuko idazkari teknikoa. (6923)

| | |
|---|---|
| 1461 | ASERRADO Y PREPARACIÓN INDUSTRIAL DE LA MADERA. |
| 1462 | FABRICACIÓN DE PRODUCTOS SEMIELABORADOS DE MADERA. |
| 1463 | FABRICACIÓN EN SERIE DE PIEZAS DE CARPINTERÍA, PARQUET Y ESTRUCTURAS DE MADERA PARA LA CONSTRUCCIÓN. |
| 1464 | FABRICACIÓN DE ENVASES Y EMBALAJES DE MADERA. |
| 1465 | FABRICACIÓN DE OBJETOS DIVERSOS DE MADERA (EXCEPTO MUEBLES). |
| 1466 | FABRICACIÓN DE PRODUCTOS DE CORCHO. |
| 1467 | FABRICACIÓN DE ARTÍCULOS DE JUNCO Y CAÑA, CESTERIA, BROCHAS, CEPILLOS, ETC. (EXCEPTO MUEBLES). |
| 1468 | INDUSTRIA DEL MUEBLE DE MADERA. |
| 1504 | INSTALACIONES Y MONTAJES. |
| 1505 | ACABADO DE OBRAS. |
| 1653 | COMERCIO AL POR MENOR DE ARTÍCULOS PARA EL EQUIPAMIENTO DEL HOGAR Y LA CONSTRUCCIÓN. |
| 1691 | REPARACIÓN DE ARTÍCULOS ELÉCTRICOS PARA EL HOGAR, VEHÍCULOS AUTOMÓVILES Y OTROS BIENES DE CONSUMO. |
| 1755 | AGENCIAS DE VIAJES. |
| 1971 | LAVANDERIAS, TINTORERIAS Y SERVICIOS SIMILARES. |
| 1972 | SALONES DE PELUQUERÍA E INSTITUTOS DE BELLEZA. |
| 1973 | SERVICIOS FOTOGRAFICOS, MAQUINAS AUTOMÁTICAS FOTOGRÁFICAS Y SERVICIOS DE FOTOCOPIAS. |
| 1975 | SERVICIOS DE ENMARCACIÓN. |
| 2432 | DECORADORES-DISEÑADORES DE INTERIORES. |
| 2861 | PINTORES, ESCULTORES, CERAMISTAS, ARTESANOS, GRABADORES Y ARTISTAS SIMILARES. |

*Segundo.* Ampliar el plazo de presentación de solicitudes hasta las 12:00 horas del día 15 de diciembre de 2021.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 26 de octubre de 2021.—El secretario técnico del Departamento. (6923)

EK\CV GAO-I-2021-06923